

puntuua

BERGARAKO SEI BASERRIREN JATORRIA

XV. MENDEKOAK DIRELA
ZEHAZTU DUTE





PUNTUA 229

2020-03-06 EGUBAKOITZA

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Ximun Fuchs
6 **Irudiz** Eurizale, mendizale
8 **Mundutik** Txina: Etorbizunera bidea
10 **Erreportajea**
Mendeetan barrena tente diraute
20 **Elkarrizketa**
Mercedes Hernaiz, notarioa
24 **Osasuna**
Hemen da birus berria, koronabirusa
26 **Kirola**
Sara eta Haritz Arregi eskiatzaileak
28 **Adituen esanetan**
Veggie eskaintza handituz doa
30 **Otorduan** Txopekua jatetxea:
denetariko aukerak
32 **Moda** Trajeak
34 **Motorra** Patinete elektrikoa,
lanerako erreminta
36 **Gure artistak**
Markel Bazanbide arrasatearra
38 **Kultura**
Jon Sala, Filmin plataformako kidea
40 **Liburu artean** *Bibliomanías*
- 42 **Gure altxorrak**
Arrasate: Antoniñako hezegunea
46 **Teknomania**
47 **Jaioberriak**
- IRITZIA
3 **Nire txanda** Iker Badiola Etxaburu
Plastikorik ez
16 **Hainbat aburu**
Martin Calvo *Sanna Marin*
16 **Eztabaida**
Bakardadearen aurka, elkartzitza
17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
17 **Errematea** Xabier Mugarza
Alienazioa eta alineazioa
18 **Talaiatik** Juanjo San Miguel
Bergaretxe *Arrakastaren hondamena*
44 **Komunikazioa**
Andrea Gonzalez *Kontrolpean*

puntua

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate
Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa
Igone Osinaga
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano

Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Plastikorik ez



IKER BADIOLA ETXABURU

Plastikoz josita; horrela egon dira Euskal Herriko zubi, baranda eta bazterrak hilabete luzez. Neguko euri-jasa, haize eta txingorren higaduraz puskaka mikroplastiko izeneko zati nimiñoak airera isuriaz, azkenean jira eta bira ibaietatik gure itsasoetara joateko.

Ama Lurrekiko errespetuz bizi nahi dugun garai berri honetan ikasi dugun kutsadura arriskutsua elikatuz. Gero eta ugariagoak omen dira arrainen, moluskuen, eta abarren digestio aparatuan plastikoak aurkitzea; eta txikiak izanik ikusi ez, eta guk denak jan. Badago esaten duenik laster itsasoan plastiko gehiago izango dugula arrainak baino. Eta zer egin dezakegu horren aurrean? Plastikoen erabilera gutxitu eta erabiltzean hauen jarduna kontrolatu eta ahalegindu ez daitezela hauen puskak aireratu. Gizartean zabaldua dagoen mezua delakoan nengoen, baina, ikusitakoak ikusita, oker nembilelakoan nago.

Euskal Herriko eskubide sozialen karta sinatu eta sustatu duten erakundeak aurrerakoi eta ekologistatzat neuzkan, eta hara non plastikoz josi gaituztela. Aldarrikapen mezuak honela dio sarreran: *Benetako jendarte aldaketarako beharrezkoa da ekoizpen bai kontsumo ereduak aldatzea.*

Eta eredu aldaketaren aldarrikapenaren alde abendutik urtarrilaren 30era arte grebara deitzen zuten *betiko* plastikozko pankartak nonahi egon dira zintzilik; ehunka edo, agian, milaka, euren zatitxoak askatuz. Greba eguna igarota ere, bakar batzuk izkina batzuetan ahaztuta eta abandonatuta gelditu dira, eguzkiaren indarraren ondorioz kolorea ere poliki-poliki galduaz.

Jaso dugun emergentzia mezuak hau dakar, nahitaez: benetako militantzia. Aldarri, pegatina eta pankartak albo batera utzi eta egiten dugun gauza bakoitzaren gogoeta sakona. Ez du balio albokoa kritikatzek eta haren ekintzak ezbaian jartzek. Guztiok jardun behar dugu koherentziaz edo, ahal den neurrian, ahalik eta koherentzia handienez.

Azken deia omen da, ez omen dugu izango bigarren aukerarik; hortaz, gure orain arteko joerak eta jarrerak guztiz aldatu beharko dira, jada ez du balio "ez nekien" esateak. Egoera honen aurrean esaldi bat datorkit burura: mugimendua ibiliaz demostratzen da. Bestalde, egia da ibiltzen ikasteko aurrena jausi beharra dagoela. ■

EZ DU BALIO ALBOKOA KRITIKATZEAK ETA HAREN EKINTZAK EZBAIAN JARTZEAK

Ximun Fuchs

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: IASONE PARADA

Baxenabartarra Euskal Herria alderik alde dabil zeharkatzen zuzendu duen azken antzezanarekin, *Zaldi urdina*-rekin.

Zein da Zaldi urdina izaten ari den arrakastaren arrazoia? Arrakastaren giltza banu, aberatsa izango nintzateke! Parametro asko sartzen dira.

Batetik, talde moduan azken hamar urteetan egin dugun lana. Bestetik, gaia bera: drogak Euskal Herrian eragindako sarraskia isildua izan da, lotsa familien gain utzi da, eta bazegoen hori askatzeko beharra. Bukatzeko, antzerkia euskaraz ikusteko, gure istorioa entzuteko eta komunitate moduan partekatze zegoen gogo handia. Horri gehitu behar zaio obra garai eta molde onean egin dela.

Zuzendari moduan, zertan ezberdintzen da hau zure aurreko lanetatik? Ildo beretik doa. Gure

lanen bi ildo nagusiak dira egungo arazoak euskaraz kontatzea; eta gure iruditeria kolektiboa ere gure hizkuntzarekin eraiki eta aberastea. Gero, apustu artistikoa eta komunikatiboa aurrekoetan baino harago joan da, baina errandako ildo beretik.

Noiz hasi eta bukatzen da antzerki zuzendariaren lana? Ideia proposatzerakoan hasten da eta ikuskizuna amaitzerakoan bukatu. Nik emanaldi

gehienak jarraitzen ditut; eta saiitzen naiz aktoreekin, teknikariek, ekoizpenekoeekin eta hedapenekoeekin aldiro puntu bat ematen, ikuskizuna beti pixka bat urrunago eraman eta orain antzeztan den antzeztan bat izateko.

Oraingoan, ez duzu aktore moduan parte hartzen. Faltan igartzten duzu? Bai; nire izaera

aktore izaera da, berez, nahiz eta plazer handiak hartzen ditudan zuzendari lanak egiten; prokurazioz bizi ditut plazer horiek.

Obra honetan ere Manex anaia zuzentzen duzu.

Familiako bazkarietan, dena ondo? Anaiak eta biok aspaldian dugun konplizitate oso gertukoa da, bai pentsaeran eta baita bihotzean ere. Bere ñabardurekin, baina oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, eta hori da osagarriak garelako, ez berdinak. Gure artean osatzen dugun lan eta

familia bikoteak aurrerapausoak egiteko indarra eta sekulako ausardia ematen digu.

Ulertzen duzu antzerkia denbora-pasa soil moduan? Bai, baina nik praktikatzen dudan moldean ez dut aisialdirako bakarrik ulertzen. Janariarekin bezala da: noizean behin joan zaitezke McDonald's batera, baina ez dio zure bizitzari ekarpenik egiten. Gizaki eta euskaldun moduan elikadura emozionala eta intelektuala beste hein batean zaintzea merezi dugu.

Euskaldunok antzerki ikusle onak gara? Bai, euskal ikusleak oso esker onekoak dira. Hori da, batetik, ahozko kultura bat dugulako eta hitzari, esaten dena entzuteari, garrantzi handia ematen diogulako; eta bestetik, mobilizatzen garenean, mobilizatzeko sekulako gaitasuna dugulako. Bihotz oneko publikoa da euskal publikoa.

Zer eskaintzen dute antzerkiak eta halako zuzeneko ikuskizunek gero eta birtualago den munduan? Existitzeko gaitasuna; izan ere, mundu birtuala ez da existitzen. Antzerkian komunitatean biltzen gara, emozioak eta pentsaerak partekatu ahal ditugu eta horrek erresistentziarako gaitasuna ematen digu. Mundu birtualak ezin digu hori eman, gero eta indibidualizatuago delako. Banakako plazerak errespetagarriak dira, baina partekatzen direnak beste maila batean daude; bai antzerkian, eta baita bizitzan ere.

Non dago mugaren beste aldean gertatzen denaz ezjakintasun handiagoa: Hegoaldean ala

Iparraldean? Iparraldean gehiago ezagutzen dugu Hegoaldea, Euskal Herriaren beharra agerian dugulako; Iparraldean bizi diren frantsesei, baina, berdin zaie. Baina errango nuke euskaldun guztiok dugula gure herri osoaren ezagutzeko beharra; leku asko dira gu ulertzeko bisitatu behar direnak. Zentzu horretan, zorte handia dugu obrarekin, Euskal Herri guztia ezagutzen ari garelako; denok gauza bera egingo bagenu, konturatuko ginatke handia, zabala eta gertukoa dela gure herria.

Zer debekatuko balizute izango litzateke bizitza tristeagoa? Nire hizkuntza; hori kenduta, bizitza marrazteko gaitasuna galduko nuke. ■■■



Eurizale, mendizale

ARGAZKIA: NATXO SANTOS

TESTUA: MAIALEN SANTOS

Azken boladan behar baino gehiagotan ateratzen den eguzkitik ihesi atera da etxetik mendizalea. Giro ederra dago mendian barrena galtzeko; eta horretan ere lagun zezakeen lanbroak. Zinez gogoko du euria, aterkipean oinez ibiltzeko bada ere. Etxera iristeko presarik ez du, Arantzazurainoko bidea egiteke dauka oraindik. Pausoak banaka eta kontu handiz egiten ditu, hosto bustiek minik hartu ez dezaten. Egurrezko zubia du orain babesleku, euria ez baita bere azala busti dezakeen bakarra; azpitik doakio erreka, uraren egarriz. Eta horixe da entzun dezakeen bakarra: ura. Txoriek erabaki dute txorik ez egitea, ez baitute horretarako motiborik. Isiltasuna da nagusi, eta, argazkilariak gain, horixe bera du lagun Urbiara domeka goiza pasatzera joan den eurizale amorratuak. ■■■





Etorkizunera bidea

TXINA



ENEKO LOPEZ DE ARMENTIA

TXINAN BIZI DEN ARETXABALETARRA

ARGAZKIAK: KIN CHEUNG/CHINADISCOVER

Duela bi urte, Txinako Zhuhai hirira abiatu nintzen lanera. Europan zehar aurrez pixka bat bidaiatu izan arren, sekula ez nuen eginda horrelako distantziarik, ez nekien bertan zer aurkituko nuen, nolakoa izango zen hiria edota bertako jendea.

Zhuhai, Kanton probintziako itsasondoko hiria da eta Macao eskualdearekin dago mugan. Gaur egun, 1,7 milioi biztanle ditu, azken urteetan asko hazi baita. Atzera begira jarrita, 1979an, 35.000 biztanle zituen. Txinako Herri Errepublikak kanpoko inbertsioa erakartzeko gune ekonomiko berezi bilakatu zuen Zhuhai, 1980an. Herritarra izanda, hiriei estimu handirik ez nien, baina hiri epel eta berri honek ez dit jendez beteta dagoen sentsaziorik ematen. Debagoienarekin alderatuz, eguraldia beroa eta oso hezea da.

55 kilometroko zubia

Bertako kulturarekin eta ohiturekin harrিতa geratzeaz gain, batez ere txinatarren anbizioak txunditu ninduen. Heldu eta gutxira, badian dagoen estruktura bati begira gelditu nintzen; galdetzerakoan, itsasotik zihoan zubi bat eraikitzen hari zirela erantzun zidaten. Zubi honek Hong

Kong, Zhuhai eta Macao konektatuko zituen, 55 kilometrotan, Perla ibaiaren deltan zehar.

2009an hasi ziren eraikitzen, eta, bederatzi urte pasatu eta 17.000 milioi euro gastatu ondoren, inaugurazioa 2018ko urriaren 24an egin zuten. Espero zen bezala, Xi Jinping presidentea eta beste hainbat agintari publiko bertaratu ziren. Segurtasun arazoiak zirela eta, errepide batzuk itxi eta beste hainbestetan kontrolak areagotu zituzten. Inaugurazio egunean lanetik etxera bueltan jasadako trafikoaren egoera ez dut epe laburrean ahaztuko.

Batzuek jakingo duzuen moduan, Hong Kongek eta Macaok euren txanpon, muga, pasaporte eta legeak dituzte, aurrez Ingalaterraren eta Portugalen kolonia izan baitziren. *Herrialde bat, bi sistema* lelopean, Txina herrialdearen barnean daude. Hong Kongi eta Macaori txinatar sisteman guttiz sartzeko oraindik 20 urte baino gehiago falta zaien arren, zubi honek komunikazioa eta elkarlana bultzatuko du

**55,5 KILOMETROKO
ZUBI HONEN BAITAN,
6,7 KILOMETROKO
URPEKO TUNEL BAT
ERE BADAGO**

etorkizunean, zubia 120 urte irauteko eginda dago eta. Kuriositate bezala, Hong Kong eta Macao gune administratibo berezietan ezkerretik gidatzen dute, baina Zhuhain eskumatik –Txina kontinentala–. Hori dela eta, eskumatik gidatzen da zubiaren ibilbide guztian.

Ibilbidea askotan egiteko aukera izan dut, Hong Kongera eta aireportura joateko. Esperientzia eroso da, 45 minutu behar dira. Zubia inauguratu aurretik, 3 orduko buelta luzea edota ferrya ziren aukera bakarrak. Orain, emozio pixka bat gehiago emateko, 55,5 kilometro hauetan, urpetik pasatzen den 6,7 kilometroko urpeko tunela dago. Tunel akuatiko hori eraikitzeko, bi irla artifizial egin zituzten, bertatik uretara sartzeko.

Etorkizuneko apustua

Bidaiek 7,5 euro inguruko prezioa dauka, eguneko 24 orduetan. Autobusak ere badaude, egunez 5 minutuan behin eta gaez 30 minutuan behin. Abantailaz beteta dagoenez, jendez beteta egongo zela espero nuen, baina ia ez dauka trafikorik eta daukan prezioarekin mantentze kostua ordaintzeko ere ez du dirurik ateratzen. Momentuz gutxi erabiltzen bada ere, etorkizuneko apustua dela esango nuke, eta munduari euren indarra eta boterea erakusteko balio du. ■■■



Zhuhai, Macao eta Hong Kong lotzen dituen zubiak 55,5 kilometro ditu.



Zubiak lotzen dituen hiru hiriak mapan irudikatuta.



2009an hasi zituzten zubiaren eraikuntza lanak.

Mendeetan barrena tente diraute

Bergarako sei baserriren jatorria ikertu du Arkeolan Fundazioak. Zurezko egiturak dituzten baserriak hartu dituzte proiekturako, eta egitura horien egurra aztertu ostean ondorioztatu dute ikertutako sei baserriak XV. mendean eraikiak izan zirela; batzuk mendearen lehenengo erdian, konkretuki.

Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Josue Susperregi eta Ibon Telleria**.

Bergarako sei baserriren jatorria aztertzen duen ikerketa lana aurkeztu zuten otsailaren 15ean, Bergarako Udaleko osoko bilkuren aretoan. Patxi Larrañaga historia ikertzaileak, Josue Susperregi dendrokronologoak eta Ibon Telleria arkitektoak egindako ikerketak ondorioztatu du analizatu dituzten sei baserrien egiturak XV. mendean eraikiak izan zirela.

Patxi Larrañaga historialariak urte dezente daramatza Bergarako baserriak eta leinu-etxeak aztertzen. "Oñatiko artxibo historikoan eta beste zenbait artxibotan ibiltzen naiz informazio bila. Hortik ateratako informazioarekin Bergarako 37 baserri zaharrenen zerrenda egin nuen, zutik mantentzen direnak, inolako suterik izan ez dutenak", azaldu du Larrañagak.

Ondareari balioa ematea

"Bagenekien Bergaran ondare handia dagoela, baserri asko daudela", azaldu du Larrañagarekin harreman estua duen Josue Susperregi dendrokronologoak. Gaineratu du urtero saiatzan direla herri edo eskualde bateko baserrien azterketa eta datatzea egiten, Foru Aldunditik jasotzen duten ikerketarako laguntzari esker. "Gure lurraldean zurezko izugarritzko ondarea dugu; oso polita dena, eta zaharra, gainera. Horri balioa eman behar zaio", dio Susperregik. Beste herri batzuekin alderatuta Bergaran baserri asko mantentzen direla zutik dio; 400 bat: "Sei baserri aztertu ditugu eta seiek eman dute XV. mendekoak direla. Ez dakigu Bergarako gainerako



Eguren baserria.



Monasteriobide baserria.



Eizmendi baserria.



Eduegi baserria.



Olabarri baserria.



Garitao Martisaezkoa baserria.



Ibon Telleria, Josue Susperregi eta Patxi Larrañaga.

ZUREZKO PIEZAK AZTERTZEN DIRA; LAGINAK AZTERTU ETA NOIZ MOZTU ZIREN ZEHAZTEN DA

GARAI HARTAKO BASERRIEN EZAUGARRI ARKITEKTONIKO NAGUSIA DOLAREA IZATEA DA

baserriak hain zaharrak diren edo ez, baina horiek, behintzat, bai. Beste batzuk ere izan daitezke XV mendekoak, ziur baietz", gaineratu du. Hala, baserri hauek dira XV. mendekoak: Basalgo auzoko Eguren eta Monasteriobide baserriak; Buruñao auzoko Eizmendi baserria; Aldai Egia auzoko Eduegi eta Garitao Martisaezkoa baserriak; eta, Osintxuko Olabarri baserria.

Hiru ardatz aztertzen dituzte

Baserrien jatorrien ikerketa lana egiterakoan hiru ardatz aztertzen dituzte: "Alde batetik, dokumentazio historikoa aztertzen dugu. Esan behar da dokumentazioak duen arazoa dela XVI. mendetik aurrerako dokumentazioa bakarrik dagoela. Hortik atzerako dokumentaziorik ez dago, hor badago muga bat. Hala ere, dokumentazio horrek pistak ematen dizkizu; XVI. mende hasierarako datuak baldin badaude, esan nahi du aurretik bazegoela baserria. Arkitektura ezaugarriak ere aztertzen ditugu. Ibonek neurtzen ditu pieza guztiak eta horrela konparatzen du beste eredu batzuekin", dio. Azkenik, dendrokronologia azterketa egiten dutela azaldu du Susperregik. "Zurezko piezak aztertzen dira: laginak atera eta datatu noiz moztutako zuhaitzak diren. Izan ere, badakigu zuhaitzaren moztetaren data eta egituraren eraikitze data oso gertu daudela. Pasa zitezkeen urte pare bat zuhaitza botatzen zutenetik eraikitzen zuten arte; izan ere, egur freskoa, berdea, erabiltzen zuten. Ez zuten lehortzen uzten, ze bestela oso zaila da-eta lotura guztiak egitea. Gu saiatzen gara mozketa data aurkitzen", dio Susperregi dendrokronologoak. Hirugarren datu hori emaitza eta analisia zientifikoak direla dio. "Estatistikan oinarritzen da. Ateratzen dituzun lagin horiek izan behar dute gutxieneko eraztun kantitate bat, bestela ez dute-eta emaitza fidagarriak ematen", dio. Aurrez egindako erreferentzia batekin konparatzen dute lagina eta analisiak ematen du noizkoa den eta zein fidagarritasun duen emaitza horrek.

Xehetasun arkitektonikoak

Ibon Telleria arkitektoak dio urte batzuk daramatzatela baserri horiek arkitektonikoki nolakoak diren aztertzen; hau da, eraikitze xehetasunak nolakoak diren aztertzen: "Baserri bat ikusten dugunean, hainbat xehetasunek esaten digute eredu zahar bateko oinarri bat izan dezakeela baserri horrek". Xehetasun horietako bat dolarea dela dio; eta, dolarearen egiturak berak ere pistak ematen dituela. "Dena den, datatzea egin arte, sekula ez dakigu ziur zein mendetako den", gaineratu du. Gipuzkoan eredu horretako unitate gehiago ikusi dituztela dio Telleriak, baina ezingo dela esan baserri guztien eredu berdina denik. "Oso baldintzatua dago noiz eraiki zen, eta horren arabera baldintza batzuk edo beste izaten dituzte. Baina ez genuke ondorioztatuko Bergarakoak ezberdinak diren beste ereduekin alderatuta. Goierrin aztertu ditugun baserriek ezaugarri parekoak dituzte. Uste dugu egiteko modu nahiko eratu bazegoela, eta patroil bat bazutela oso nabarmen orduko arotzek, eta horren arabera eraikitzen zutela. Ez da espresuki neurri zehatz batzuegatik, baizik eta proportzio batzuegatik. Hau da, baserri guztiek ez dute neurri bera, baina bai dute proportzio bera. Zutabe

Nola egiten dute egurraren datatzea?



Josue Susperregi, zurezko mostrak hartzen.

Zilindroak atera

Dendrokronologiak zuhaitzen eraztunen haztea aztertzen du. Modu horretan, egurraren datatzea egin dezakete, eta baita garai bateko klima berreraiki ere. Josue Susperregi dendrokronologoa agertzen da irudian egurrezko egitura bateko mostra bat hartzen. Zilindro erako tutu batzuk atera ditzake Susperregik irudian agertzen diren moduko aparatuekin.



Zurezkoa zilindroak.

Zutik dauden egiturak

Egurrezko egitura zutik duten eraikinetan dendrokronologoak berak ateratzen du zilindrozko zurezko zatia eraikinetik. Aipatutako zurezko zati hori aztertu egingo du ondoren laborategian; teleskopioarekin neurtuko ditu egurrak dituen eraztunak eta eraztunen arteko tartearak. Aurrez duen ereduarekin alderatzen du mostra datazio zehatzerako.



Zurezko xafletan uztaiak ikus daitezke.

Berritzen dihardutenak

Gerta daiteke eraikin bat berritzen ibiltzea, eta egiturako egur zati batzuk kentzea. Kasu horietan, egur zati horietatik xafiak moztuko dituzte. Xafia horietan eraztunak ikus daitezke; hala, dendrokronologoak eraztun horiek eta eraztunen arteko tartearak neurtuko ditu datatzeko zehatza egiteko. Aurrez duen ereduarekin alderatuko du emaitza.

XVI. MENDETIK AURRERA, HARRIZKO ELEMENTUAK GEHITU ZITZAIZKIEN BASERRIEI

ondoko tarteak gordetzen dituzten proportzioak berdinak dira eredu ezberdinetan, nahiz eta neurritan berdinak ez izan", azaldu du Telleriak.

Arkitektoak azaldu du uste dutela eraiki zirenean baserriak oso-osorik zirela zurezkoak: bai egiturak, bai barneko itxiturak eta baita fatxadak ere. "Momenturen batean, XVI. mendearen bukaeratik aurrera hasi ziren fatxadak eta behe oinean harrizko elementuak sartzen. Gaur egun baserri moduan identifikatzen dugun irudia orduan hartu zuten. Bergarako arkuak, armarriak... hain ezaugarri karakteristikoak diren horiek gerora emandakoak dira".

Etxe jabeak ere gustura daude

Olabarri baserriko Jose Ramon Jauregi Epeldek dio eurek jakin bazekitelera baserria zaharra zela: "Horrela ezagutu dugu betidanik, bai guk eta baita gure aurrekoek ere". Hala ere, sorpresa izan dela eraikitze data 1438-1468 urte artean kokatzea -zuhaitzak moztu zireneko data da hori-.

Gaur-gaurkoz, oraindik ez da inongo katalogaziotan sartu datatze hori: "Baina horrela egingo balitz, baserrian edozein obra edo dena delako egiteko traba gehiago jarriko dizkigutela uste dugu". Olabarri baserrian orain dela bost bat urte egin zituzten obrak, teilatuan eta barruan. "Etxea mantentzeko laguntzak ematen dituzte baserrian biziz gero, edo baserrikerik biziz gero; eta ez da gure kasua", dio Jauregik. ■■■

"Egiturak noiz eraiki ziren zehaztu dugu"

PATXI LARRAÑAGA HISTORIA IKERTZAILEA

Historia ikertzailea da Patxi Larrañaga bergararra. Hasierako dokumentazio lana egin du aipatutako proiektuan.

37 baserriz osatutako zerrenda egin ondoren, hiru ikertzailearen artean aukeraketa egin zenuten.

Bai; 37 baserri horiek kanpotik aztertu genituen, eta ikusi genuen baita ze aukera izan genezakeen barrura sartzeko; hala, 12ra laburtu genuen zerrenda. Ondoren, 12 baserri horiek barrutik ikusi genituen, eta zerrenda seira jaitsi genuen.

Ze esanahi du ikerketaren ondorioak zuretzako?



Gauza bat da jakitea baserriak zaharrak direla; baina ikerketa honekin egin duguna da egitura noiz eraiki zen zehaztu. Nabarmendu behar da ditugun datu historikoen arabera badakigula leku horietan jendea lehenagotik ere bizi

zela, baina ez dakiguna da nolako eraikinetan. Ikerketa honek ondorioztatu duena da baserri horiek, hau da, egurrezko egitura horiek noiz eraiki zituzten. Harriak eta bestelako elementuak ondoren ipinitakoak dira, XVI. mendean.

Sei aztertu dituzue, baina gehiago ere egongo dira?

Bai, badaude gehiago. Gertatzen dena da ikerketa egin ahal izateko jabeek ere ados egon behar dutela gu barrura sartzearekin. Horregatik eskertu gura ditugu hauek, euren etxeko ateak zabaldu dizkigutelako.

Ondare handia dago Bergaran?

Bai, nik uste dut baietz. Gertatzen dena da baserri batzuk erre ere egin zirela.

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua
Diseinu berritua
Erreportajeak
Kolaboratzaile berriak
'Gorabeherak' websaila...

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan





MARTIN CALVO

Sanna Marin

Zabortegiak kraskatu eta barreiatu egiten dira, bizitzaren kultura irensten duen eredu baten ikur gisa, oparotasun neurrigabearen kontrako isla balitz bezala. Lur eta balio erortzeak nonahi, gure zibilizazio krisiaren erdian, Sanna Marin 34 urteko lehen ministro feministak Finlandian buru duen bezalako gobernu laborategiak, halaber, loratu egiten dira. Gorroto, norberekeria eta gezurretan loditutako diskurtsoak deuseztatzen dituzten osagaiak dasta daitezke bere errezeta horretan; alegia, aukera eta eskubide berdintasun erreala, eraginkorra eta ongizatearen kudeaketa eta berme publikoa.

Nazioarteko erakunde ugari aitortutakoaren harira, Eskandinaviako txoko urrun

hori munduko lehenengoetako bat da justizia sozialean, genero-berdintasunean, prentsa-askatasunean, gardentasunean, hezkuntza-ereduan eta ingurumen-jasangarritasunean. Baita ekonomikoki lehiakorrenetako bat: munduko hamaikagarren herrialdea da Mundu Ekonomia Foroaren arabera (World Economic Forum); hirugarrena, berrikuntza teknologikoan.

Gure herrialde txikia ere erronka handien aurrean da. Ahuntzaren gauerdiko eztula ez

HERRITARREI, ONDO BOZKATZEKO ESKUBIDEA BAINA BATEZ ERE BEHARRA GERATZEN ZAIE

den bat, estatus politiko-juridiko egonkor eta iraunkorra aurkitu, bere potentzial guztia askatuko lukeena. Beste bat, garapena Finlandiako adibidearen antzeko baldintzetan bideragarria izan dadin, zerga-politika harmonizatu eta progresiboak, eta iruzurraren zein ustelkeriaren aurkako tresna legalak bultzatu, zabaldu eta ezarri.

Apirilaren 5eko hauteskunde-hitzordua dela-eta politikariek badute non kopiatu. Propaganda eta mobilizazio antzuek nekatuta diren herritarrei, ondo bozkatzeko eskubidea baina batez ere beharra geratzen zaie, politikari profesionalak hitzartutakoak betetzeko exijituz, hurrengo hauteskunde abaguneetan errukirik gabe kanporatzeko abisupean. ■■■

EZTABAIDA

Bakardadearen aurka, elkarbizitza

Suediar gazteen %80k bakardadearen ondorioak pairatzen dituzte; horri aurre egiteko, etxebizitza-sistema bat abiarazi dute: gazteek eta nagusiek etxebizitza partekatzea.



EUSEBIO GONZALEZ
PSIKOLOGOA

"Ez gara animalia bakartiak eta bakardade hori ez da batere ona gizakiontzat. Gizartearen parte sentitzeak onura izugarriak dakartzat guretzat: nork bere burua den modura erakusteko gaitasuna, gizarteko bestelako kideekin elkarbizitzan".



GARAZI AZPEITIA
GAZTEA

"Bizitza sozialak paper garrantzitsuagoa du gurean, baina ez dugu zertan fisikoki bakarrik egon bakardadea sumatzeko. Pertsonen beharra dugu, gure pentsamenduetan murgildu eta horiek aztertzea ere ezinbestekoa da norberaren garapenerako".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



XABIER MUGARZA

Alienazioa eta alineazioa

Azken urteetan zabor domestikoaren inguruan sortutako liskarrak bigarren maila batean utzita zuen arazo askoz potoloago bat argitaratu berri du Zaldibarren gertatu den desastreak: zabor industrialaren kudeaketa. Kontraesan ugari sortuko duen arazo potoloa da; gainera, gaur egungo jarduerekin bateraezina da konponbidea. Eta gaur egungo jarduerekin hausteak bizi kalitatean izugarrizko eragina izango duela uste dut.

Beste alde batetik, harrigarria da gure arteko solasaldi edo eztabaidetarako gaiak zenbateraino *inposatzen* dizkiguten. Alienazioarekin batera dator, gainera, alineazioa, berehala kokatzen baikara haren edo honen postura defenditzen, benetan gertatzen ari denari gehiegi erreparatu gabe.

Honek guztiak hurrengoia pentsatzera narama: notizia bonbardaketek, alde guztietatik jasotzen ditugun berri andanek, asko zailtzen dute askatasunez pentsatzea eta norberaren ideia eta posturak garatzea.

Horregatik, guretzat guztiz berandu ez den arren, gutxienez egin dezagun gure eskuetan dagoen guztia gure hurrek beraien kabuz gauzak aztertu eta beraien ideia pertsonal/ez alienatuak eta, akaso, desalineatuak, garatu ditzaten. ■■■



JOSU BIAIN
IKASLEA

"Nire inguruan ez dut horrelako arazorik ikusten eta ez dut uste Euskal Herrian arrakasta izango duenik. Dena den, metodo egokia iruditzen zait bakardadeak dakartzan arazoei aurre egiteko, nahiz eta kasu batzuetan bakarrik egotea egokiena den".



MADDI GURIDI
ETXEA PARTEKATZEN DU

"Uste dut etxebizitza partekatzea esperientzia positiboa dela, orokorrean. Nire kasuan, hainbat lagunekin partekatzen dut etxebizitza, baina pertsona nagusien eta gazteen arteko harremana aberasgarria izan daitekeela iruditzen zait".

Arrakastaren hondamena



JUANJO SAN MIGUEL BERGARETXE EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

Izaki bizidun ooren helburu nagusia irautea da; bai banakoarena, baita espezie osoarena ere. Borroka horretan dihardugu bizia lurrean ernaldutik. Beti aldakorrek diren egoeretara ondoen egokitu direnek lortu dute jomuga erdieste.

Ez dakigu ziur bi hankaren gainean mugitzen garenok noiz ekin genion amaierarik ez duen borrokari, baina, zalantzarik gabe, bizi era guztien ginetik gailentzea lortu dugu eta gaur egun lurra eta natura gure beharretara egokitu ditugu.

Espezie gisa lorpenak ikusgarriak dira; neurri gabe hazi eta hedatzeaz gain, ongizate sistema bikaina antolatuta dugu; batez ere, espeziearen talde aberatsenen lurretan. Hazkunde eta hobekuntza, hala ere, orokorrak izan dira, lurrean zehar gabiltzan 7.400 miloi gizakion artean ezberdintasunak oraindik nabarmenak izan arren. Eta lorpen horien artean nagusia da bizi-itxaropena orain dela gutxi sinestezinak

ziruditen mugetara eraman izana.

Azken mende erdian, Europako hainbat herrialdetan eta Japonian bizi-itxaropena lau urte luzatu da hamarkada bakoitzeko eta gaur egun 80 urtetik gorakoa da. Egia da kontinente bakoitzean ezberdina dela jaiotzen den umeak izan lezakeen bizi iraupena; hor ere Afrika dezente atzerago dago, baina, oro har, gizaki guztion urte kopuruak gora egin du nabarmen. Herioaren kontrako borroka ez dugu irabazi, baina beranduago etortzera derrigortu dugu.

Bizitza horrenbeste luzatu izanak, hala ere, ondorio kezkarriak ditu: alde batetik, azken urteak gogoragoak izan litezke, eta arazo askoren eragile. Pertsonok norberaren buruaren jabe izateko ahalmena galtzen dugu, eta egunerokotasunari aurre egiteko laguntza ezinbesteko bihurtu liteke. Menpekotasun horrek ondorio garesti eta mingarriak ditu, bai jasaten duenarentzat, baita ingurukoentzat ere. Jasan eta

eragiten dugun sufrimenduz aparte, zaharkitutako gizarteek eragozpen nabarmenak dituzte etorkizunaren erronkei aurre egin ahal izateko, ez dute ez kemenik, ezta irtotasunik ere datorrena antolatzeke, ideiak berritzeke edo irudimena lantzeke.

Aditu zenbaitek diote "suizidio demografikoaren" atarian gaudela, ezingo diogulako aurre egin maila horretako desafioari. Hauen iritziz, gainera, bide honetatik iritsiko zaizkigun arazoak klima aldaketarenak baino lehenago izango ditugu gainean eta nekezagoak izango dira, ez dugulako baliabide nahiko zentzuz kudeatzeko.

Gizakion asmakizun nagusiak goldea, gorpila, inprenta eta automobila izan litezke. Guztiek goitik behera aldatu dute gure bizimodua, erosoago bihurtu dute eta edozein jarduera askoz emankorrago. Aurrerapen hauek, gainera, historiaren abiada azkartu dute.

Azken hamarkadetan bi izan dira gure bizimodua erabat aldatu duten tresnak: sakelako

telefonoa eta Internet. Sortu zirela denbora gutxi pasa bada ere, gaur egun ezin dugu imajinatu baliabide hauek gabeko eginkizunik. Telefonoan gure oroimena txertatu dugu, zerebrotik kanpo kokatu dugu gogoratu beharreko guztia, eta gaur egun ezingo genuke ia ezer egin bere laguntzarik gabe. Internet, aldiz, lanerako, aisialdirako, informazioa lortzeko eta besteekiko harremanetarako oinarrizko egitura da; konexiorik gabe galduta gaude, garai bateko naufragoen gisa.

Baina tresna aparta hauek gure buruaren zelatari ere badira. Gure joan-etorriak, aukerak, zaletasunak, gure ezkutuko afizioak, inoiz aitortuko ez genituzkeen ibilbideak... Guztia agerian uzten dugu. Sarea kontrolatzen dutenek inoiz baino informazio gehiago dute. Intimitatea amets huts bihurtu da, ezin baitugu gure arrastoa ezkutatu. Teknologia eta adimen artifiziala gure bizimodua hobetzeko baliabidea izateko garatu omen dituzte, baina gizabanakoaren

kontrol tresna beldurgarri bihurtu dira. Ezin dugu ezer gorde, ezin ditugu gure zantzuak eta oinatzak ezabatu. Biluzik gaude...

Teknologia, gainera, aurre hartu die armei eta diplomaziari mundua kontrolatzeko ahaleginetan. Hor ari dira Txina eta Ameriketako Estatu Batuak sareak bota nahian bazter guztietan, teknologia menderatzen duenak mundua mendeaz izango duelako.

Esan ohi da gizakion aseezintasuna dela aurrerapenen eta hobekuntzen eragile nagusia. Aldaketa eta berrikuntza beharra gure senaren sustraietan omen dugu. Zerbaitek, lortu bezain azkar, jakin-mina ase eta beste zerbaiten atzetik jartzen gaitu. Baina amaierarik gabeko lasterketa horretan gero eta beharrezkoagoak dirudite balazten euskarriek, ezin hobea iruditzen zitzaiguna benetan arrisku iturri eta kaltegarri bilakatu zaigulako. ■■■

SAREA KONTROLATZEN DUTENEK INOIZ BAINO INFORMAZIO GEHIAGO DUTE

"Aberasgarria eta bokaziozkoa da notario izatearena"

MERCEDES HERNAIZ NOTARIOA

Oposizio bidez plaza lortu duten abokatuak dira notarioak. Funtzionarioak, alegia. Bada, ez dute diru ekarpenik jasotzen administrazio publikotik. Euren soldata ematen duten zerbitzuaren araberakoa izaten da. Herritarrak dira notario baten bezeroak, askotariko dokumentazioak egiteko laguntza ematen duena. Testua eta argazkiak: **Mireia Bikuña Madrid**.

Madrildarra jaiotzez, duela 14 urte heldu zen Oñatira, notario lanak egitera. Eguneroko zerbitzua emateaz gain, etengabe ikasten dihardu Oñatiko notarioak, "legeak egunero aldatzen dira eta". Hainbatetan, hitzaldiak ere ematen ditu. Azkena, Pake Leku elkartean egindakoa. Bereziki, ezgaitasunen bat sufritzen denerako lege aldetik nola egon beharko luketen babestuta kontatu zien erretiratuei.

Ezgaitasunen bat sufritzen duen pertsona batek kontuan hartu behar dituen ahalordeei buruz egin zenuen berba erretiratuekin.

Ez bakarrik ahalordeei buruz. Bereziki, kontatu nien nola antolatu dezakegun gure bizitza, borondaterik, askatasunik eta gaitasunik ez daukagunerako. Izan daiteke gaixorik gaudelako, istripu bat izan dugulako... Hau da, gaixorik dagoen pertsona hori bizirik dago, baina ez da gai bere bizitza juridikoa antolatzeko. Istripua eduki du norbaitek, eta paraplegiko geratu da. Akaso, ez du gehiago nomina kobratuko, baina lanerako ezintasuna kobratuko du. Bada, horiek guztiak kudeatu egin behar dira, baina ezgaitasuna duen

pertsona horrek ezin du hori guztia egin. Halako egoera hipotetiko asko daude, eta horiei aurre egin behar diegu egunero. Norberak ezin baditu kudeaketa horiek egin, beste norbaitek egin beharko ditu. Baina ez edonork. Norberak izendatu behar du pertsona bat. Notarioaren aurrean ahalordeak emango dizkio.

Noiz komeni da horiek egitea?

Osasuntsu eta kontziente gaudenean. Ahalordeak ematen dituen pertsona horrek dokumentuak sinatu behar ditu eta bere buruaren eta nahiaren jabe izan behar du. Ez dago adin jakinik hori egiteko, baina bai da komenigarria egitea.

Hortaz, herritarrak ez dira kontziente lege aldetik nola eduki behar dituzten gauzak, arazoren bat izaten duten arte.

Hori da. Guztiok pentsatzen dugu guri ez zaigula bat-bateko ezer pasako, eta pasatzen zaigunean larritzen gara. Akaso, errespetua eta beldurra ematen duen gaia da. Askok, gehiengoak, esango nuke, ahalordeak heriotzarekin lotzen dute. Hori ez da zuzena. Gauza bat da ahalordeak ematea norbaiti, norbera ezgai baina bizirik dagoenerako; eta beste gauza bat da testamentua egitea, norbera hiltzen denerako. Eta kontuan hartu



Argazkioinaxxx.

behar den beste gauza bat da ahalordeak eman ahal izateko norbere borondatez joan behar dela notarioarengana. Inork behartu barik. Kontziente izan behar dugu ahalordeak ematen ditugunean beste pertsona horri denetik egiteko ahalmena ematen diogula. Horregatik diot borondatezkoa eta askatasunezkoa izan behar duela erabaki hori, eta konfiantzako pertsona batengan, gainera.

Zer da ahalorde bat?

Beste pertsona baten izenean edozer gauza egiteko baimena duen dokumentu bat da. Izan daiteke gauza zehatz baterako. Baina, normalean, hainbat gauza sartzen dira dokumentu horretan: pertsonaren zaintza, medikuekin kontsultak eta baimenak, banketxeekin hartu-emanak, salmentak, pentsioen kudeaketa, herentzia baten sinadura... Gainera, ahalordeak ematen direnean, indarrean noiztik dauden zehaztu daiteke. Adibidez, egun batetik bestera indarrean egon daiteke, ahalordea egin zuen pertsona gai izan arren. Bigarren bati eskumena ematen dio, baina berea galdu barik. Hau da, guk dauzkagun eskubideak ez ditugu galtzen, beste bati ematearren. Aldi berean egin daitezke.

Bizi-testamentua geroz eta gehiago egiten da?

Ahalordeak bezala, testamentua ere askatasunez eta kontzienteki egiten den dokumentua da. Baina heriotza bat tarteko dagoenean bakarrik erabiltzen da. Beste aukera bat da bizi testamentua. Aurretiazko Borondateen Agiria du izen ofiziala. Agiri horretan, pertsona batek adierazten du zer osasun laguntza nahi duen bere borondatea adierazteko gauza ez denean. Norberak erabakitzen du zer sartu agiri horretan: egoera jakin batzuetan zer tratamendu onartu, hiltzean organoekin zer egin... Erregistro batean sartzen dituzte agiri horiek, eta medikuek aintzat hartu behar dute han jasotakoa, indarrean dagoen legea betetzen ez dutenean izan ezik. Adibidea, eutanasiaren kasuan.

Non egin daiteke bizi-testamentua?

Agiriak balioa izateko, hiru modutara sinatu daiteke: adinez nagusi diren hiru lekukoren aurrean, notarioaren aurrean edo agirien erregistroko funtzionario baten aurrean.

Orain arte aipatutako hiru dokumentu mota horiek egiteaz gain, zein beste kontsulta egiten dituzte herritarrek notariotzan?

Egia esan, askotariko dokumentuak prestatzen ditugu: salmenta-erosketak, herentziak... Baina egia da geroz eta herritar gehiago etortzen dela informazio bila. Edozein goeraren aurrean

dauden aukerez galdezka etortzen dira. Guk informazio hori ematen diegu, eta eurek dute azken hitza. Gure lanaren parte bat da informazioa ahalik eta argien ematea.

Notarioak abokatuak dira?

Bai. Zuzenbidea ikasi behar da, eta gero erabakitzen duzu, hala nahi izanez gero, zein bide hartu. Ni neuk notario izan gura nuela argi nuen. Bada, notario izateko, oposizioak gainditu behar dira. Azterketa bat dago, zuzenbide pribatuari buruzko gaitegi zabal batekin. Hori gaindituta, notario plaza daukazu. Beraz, funtzionarioak gara. Bada, lanean hasten garenean, profesionalak gara. Hau da, nire soldata ez dator ez Eusko Jaurlaritzatik, ezta Espainiako Gobernutik ere. Nire soldata bulegoan egindako tramiteengatik lortutakoa izaten da. Ez dit administrazio publikoak ordaintzen. Bulegoaren alokairua, nire laguntzaileen soldatak, notariotzaren gastuak... horiek guztiak nire poltsikotik ordaintzen ditut. Notario bakoitzak ordaintzen du berak erabiltzen duen azpiegitura. Nire kasuan, bulego txikia da, eta hiru langile gaude lanean. Hori bai, nire lana egiteko eta antolatzeo askatasuna dudan arren –ordutegia, lan egiteko egunak...–, beti daude bete beharreko arau eta forma batzuk.

Zer da gehien gustatzen zaizuna zure lanbidetik?

Nik oso garbi nuen notario izan gura nuela, zuzenbidea maite dudalako; eta lanbide oso aberasgarria eta bokaziozkoa dela esango nuke. Jendearekin hartu-eman zuzena daukagu. Eman egiten dugu, baina jaso ere bai. Ni nagoen lekutik, eta ikusten ditudan egoerekin, asko erlatibizatzen da. Bulegoan gauza onak eta txarrak ikusi ditut. Une larrietan zeuden pertsonak, eta une gozoak bizi izan dituztenak. Egoera ezberdinak. Horrek guztiorrek eragin egiten dizu, eta erlatibizatzen ikasteko balio du.

Notarioak herri guztietan daude?

Ez. Espainiako Gobernuak Justizia Ministerioak eta Ekonomia Ministerioak zehazten dute zein lekutan egongo diren notarioak. Herri guztietan ez badaude, antolatutako egiten dira, herritar guztiek jaso dezaten zerbitzu hori. Adibidez, nire lehenengo lanpostua Errioxako Torrecilla herrian eduki nuen. 400 biztanle inguru zituen. Bulegoa Torrecillan neukan, baina, egunez egun, herria aldatzen nuen. Villoslada, Rasillo... Helburua zen Errioxa iparraldeko herri guztietara heltzea. Orain ere, modu berean egiten da. Hainbat lekutan, hainbat herri notarioa partekatzen dute.



Mercedes Hernaiz, bere bulegoan.

"KONTZIENTE ETA OSASUNTSU GAUDENEAN KOMENI DA DOKUMENTUAK EGITEA"

"BESTE PERTSONA BATEN IZENEAN EDOZER GAUZA EGITEKO BAIMENA EMATEN DU AHALORDEAK"

"FUNTZIONARIOAK GARA, BAINA EZ DUGU DIRU EKARPENIK JASOTZEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOTIK"

Eta nolatan heldu ziren Oñatira?

Duela 14 urte etorri nintzen. Leku aldaketa eskatu nuen. Funtzionario izanik, plaza aldaketa eskatzeko eskubidea daukagu. Oñatira heldu nintzen, ezkondu eta hemen geratu naiz.

Madrildarra izanik, hiriburu handi batean lan egiteko aukera edukiko zenuen, ba.

Notariorzak hiru mailatan banatzen dira: lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak. Txikiak, herrietakoak, hirugarren mailakoak dira. 50.000 biztanle inguruko hirietakoak, bigarren mailakoak; eta hortik gorakoak, lehenengo mailakoak. Maila batetik bestera pasatzeko bi modu daude: antzinasuna edo notarioen arteko barne oposizioa. Dena den, ni oso gustura nago hemen. Ez nuke aldatuko hiriburu handi batekin.

Zenbat notario daude Espainian?

2.900 notario daude, eta beste horrenbeste notariotza. Oposizioak egin nituenean, erdiak ginen emakumeak eta beste erdiak gizonezkoak. Baina, azken azterketan garbi geratu zen gaur egun emakumezkoak garela gehiago, nahiz eta notarioaren figura, gehienetan, beltzez jantzitako gizonezkoari lotuta egon. ■■■

Hemen da birus berria

KORONABIRUSA, ZER DAKIGU?



IÑAKI PEÑA BARNE-MEDIKUA

ARGAZKIA: UNSPLASH / NEWSCIENTIST.COM

Badakigu koronabirusak infekzioak eragiten dituela ugaztunetan –txakurrak, katuak, behiak, txerriak...– eta hegaztietan –oilaskoak, indioilarrak...–.

Zoonosi bat da. Hau da, animalietatik gizakietara zabaldu daitekeen gaixotasun kutsakorra da. Gizakion artean ez tularen bidez transmititzen da, eta arnas aparatuko infekzioak agertzen dira, normalean larriak ez direnak.

Mikroskopioan begiratuta, koroa modukoa dauka inguruan, eta hortik datorkio izena. 1960ko hamarkadan deskribatu zuten lehenengo aldiz. Sintomen artean, sukarra, eztula eta arnasetua eragin ditzake. Konplikatur gero, pneumonia eta egoera larriagoak ekar ditzake birus horrek.

Badakigu ez dagoela ez txertorik ez tratamendu antibiralik. Inkubatze tarte, hau da, kutsatua izatetik sintomak agertzen hasten

arteko denbora 1-14 egunekoa da; batez beste, 5-6 egun.

Garapena denboran

2003an gertatu zen mundu mailakoa izan zen arnas sindrome akutu larriaren agerraldia. *Severe acute respiratory syndrome* edo SARS ere deiturikoa.

Aurreko urtean, 2002an, sortu zen, Asian. Eragilea koronabirusaren aldaera berri bat izan zen. Zortzi mila pertsonatik gora kutsatu ziren, eta %10 hil.

2019ko abenduan, Wuhan hirian piztu zen antzeko beste agerraldi bat. Txinako ekialdean dago Wuhan, eta hamaika milioi biztanle dituen eremua da. Oraingo honetan, maila handiagokoa.

COVID-19 koronabirusaren aldaera berria identifikatu dute, eta badakigu SARS birusarekin estuki lotuta dagoela. Hilkortasun tasa, hala ere, 2003an ikusitakoa baino dezente txikiagoa da: %1 eta %3 ingurukoa. Kutsakortasuna handiagoa da, beraz, baina hilkortasuna txikiagoa.

Pandemiaren datuak

2020ko urtarrilaren 30ean, larrialdi-egoera izendatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME). Neurria hartu zuen, batez ere, herrialde pobreetara iritsiz gero balizko ondorio kontrolaezinak kontuan hartuta. Txinak hartutako murrizpen, mugatze eta isolatze neurriak ere babestu egin zituen.

Prebentzioari dagokionez, ez da aholkatzen maskarak erabiltzea, orokorrean, gizartean. Gomendioa da gaixoak artatzen dituzten profesionalendako eta pazienteen senitartekoendako.

Pandemia kategorian sartuta, Txinatik hasi eta zabaldu da birusa Hong Kongera, Hego Koreara, Japoniara, Singapurrera, Filipinetara, Iranera eta Italiara.

2020ko otsailaren 28rako, 83.000 kasutik gora zeuden baieztatuta 50 herrialde baino gehiagotan, mundu osoan. Horietatik, 8.000 kasu daude larri moduan sailkatuta. Orain



EZTULAREN BITARTEZ TRANSMITITZEN DA ETA ARNAS APARATUKO INFEKZIOAK ERAGITEN DITU

arte, 2.800 heriotza zenbatu dira.

Gaurkotutako datuak emate aldera, *JAMA* edo *Journal of the American Medical Association* aldizkaria aipatuko dugu. Medikuntza gaietan espezializatutako aldizkarien artean prestigio eta kontsulta gehien dituenetakoa da gure artean zein mundu mailan.

Otsailaren 24an artikulu mamitsu eta fidagarri bat argitaratu zuten bertan. Are gehiago, orain arte egindako berrikuspenik sendoenetakoa da.

COVID-19k Txinan eragindako agerraldiarekin lotuta, 70.000 kasu baino gehiago aztertu dituzte. Horietatik, 45.000 kasu inguru baieztatu dira infekzioak kutsatuta moduan. 10.000

kasutan diagnostikoa klinikoa izan zen. Hau da, sintomak bai, baina baieztapen mikrobiologikorik ez. Bi multzoen batura kasu guztien %77 da.

Baieztatutako infekzioen artean %87 ziren 30 eta 79 urte arteko gaixoak. Gaixotasunaren larritasunari dagokionez, kasuen %81 larritasun ertainekoak ziren, %14 larriak eta %5 kritikoak. Zainketa intentsiboko unitateetan ingresatzeko modukoak, beraz, %19.

Hilkortasun tasari dagokionez, 45.000 kasuren artean 1.023 paziente hil dira. Hau da, %2,3 soilik. Betiere, Txinan.

Hildako horien artean, %49 kasu kritikoak ziren, %15 ziren 80 urtetik gorakoak eta %8, berriz, 70-79 urtekoak.

Kutsatutako osasuneko profesionalen artean, azkenik, %63 Wuhan eskualdekoa izan dira. %15 izan dira kasu larriak edo kritikoak, eta, guztira, bost heriotza besterik ez da egon.

Ekonomia ere kutsatuta

Mundu mailan, esanguratsua izaten ari dira arlo ekonomikoan eragindako kalteak. Burtsan, adibidez, nabaritu dira, eta nazioarte mailan eragin handikoa den *Bartzelonako Mobile World Congress*, esaterako, bertan behera gelditu da aurten. Veneziako Inauteri ezagunetan ere eragina izan du koronabirusak.

Euskal Herrian ere antzeman ditugu lehenengo kasuak. Osakidetza eta Osasunbideak protokoloak abiatu dituzte. ■

Eskia pasio, txiki-txikitatik

SARA ETA HARITZ ARREGI OÑATIARRAK

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: E.A. ETA S.A.

Haritz Arregik 14 urte ditu eta Sara Arregik 16. Txiki-txikitatik eskiatzen dute oñatiarrek, eta zeharkaldietan ere oso goiz hasi ziren, 6 eta 8 urte zituztela, hain zuzen. "Lehen, astebururo joaten ginen, neguan, Luz Ardidenera eskiatzera. Gero, Oñatin bertan hasi ginen eskiatzen. Gurasoek ere eskiatzen dute, eta horrek aukera asko eskaintzen dizkigu", azaldu dute.

Otsailean Panticosan (Huesca) jokaturako Euskal Herriko mendi eski txapelketan izan dira -Izaban zen jokatzekoa, baina elur falta zela-eta lekuz aldatu behar izan zuten-. Hiru kategoriatan banatu zuten txapelketa: senior mailakoak, 23 urtez azpikoak -18 eta 23 urte artekoak- eta gainontzekoak kadete mailakoak. "Kategoriak aldatzen ari dira, baina oraingo honetan oraindik aldatu gabe zeuden, eta horregatik egin zuten banaketa hori".

Hori dela eta, biak kadete mailan aritu ziren, nahiz eta ibilbide desberdinak egin zituzten. Sarak 1.100 metroko desnibel positiboa zeukan ibilbidea osatu behar izan zuen, eta Haritzek, 800 metroko desnibel positiboa zeukana. Sara txapeldun izan zen emakumezkoetan, eta Haritz, berriz, hirugarren,

gizonezkoetan. "Oso ibilbide teknikoa zen. Izan ere, oso elur gutxi zegoen, txarra eta gogorra, eta horrek arriskutsu bilakatzen zuen ibilbidea. Ohituta gaude eskiatzen, txikitatik gabiltzalako, baina zaila egin zitzaigun proba; ez dugu sekula horrenbeste sufritu jaisten. Kranpoiak jarri behar izan genituen, eta gurasoen laguntara barik ez gaude horretara ohituta", onartu dute.

Asteburu berean, lasterketa bertikalean ere parte hartu zuten anai-arrebek -hori ez zen Euskal Herriko txapelketakoa-. 500 metroko proba izan zen, guztia gorantz. "Lehen aldia zen halako proba batean parte hartzen genuena, eta asko disfrutatu genuen". Proba hartan ere Sara txapeldun izan zen, eta Haritz, hirugarren.

Txapelketetara ohitzen

Txapelketetara ez daude ohitura oraindik. Otsail hasieran Candanchun (Huesca) jokaturako beste proba batean aritu ziren, eta Euskal Herriko bigarrena izan da. Alde horretatik, beste esperientzia bat bizi izan dutela aitortu dute.

**6 ETA 8 URTE
ZITUZTELA HASI ZIREN
ZEHARKALDIK EGITEN;
TXAPELKETETAN,
BERRIZ, AURTEN**

"Gurasoekin egun-pasa eskiatzera joan izan gara betidanik, baina txapelketa erabat ezberdina da. Oso zorrotza da guztia; motxilan 15 gauza eduki behar dituzu, eta, eduki beharreko guztia ez badaukazu, ezin zara abiatu".

Aitortu dute euren buruetan ez zegoela txapelketetan hasia. "Baina iaz maiatzean lagun batzuek esan ziguten euskal selekzioko teknifikazio probak zeudela, eta animatu egin ginen. Biok hautatu gintuzten. Teknifikazio taldean 14 eta 17 urte arteko sei gazte gaude", diote.

Espainiakoan izango da Sara

Martxoaren 12tik 15era Benasquen (Huesca) jokaturako den Espainiako Txapelketan parte hartuko du Sarak, euskal selekzioarekin. Egubakoitzean, esprint proba izango da; zapatuan, mendi eskiko proba; eta domekan, bertikala.

Martxoaren 21ean, bestalde, Euskal Herriko Txapelketako lasterketa bertikala egingo dute biek, Asturiasen, Europako mendietan.

Horrez gain, Sarak mendian korrika hasteko asmoa dauka, nahiz eta lasterketa gutxi egiteko asmoa daukan. Gazteen Zegama-Aizkorri egingo du, esaterako. Haritzek, bestalde, txirrindularitzan jarraituko du negua bukatutakoan, Aloña Mendin. Izan ere, orain da denboraldia hastekoa. ■



Sara Arregi eta Haritz Arregi oñatiarrak, eskiak eskuetan dituztela.



Sara Arregi, Euskal Herriko Txapelketan.



Haritz Arregi, Euskal Herriko Txapelketan.

Haragiaren ordezkkoak

'VEGGIE' ESKAINTZA HANDITUZ DOA



MIREN RODRIGUEZ

EROSKI CONSUMER

ARGAZKIA: MARKUS SPISKE

Janari lasterra egiten duen kate batek soja-hanburgesa berria aurkeztu zuen orain dela pare bat hilabete, Avilan. Zergatik han? Hiri horrek ospe handia duelako txuletoiaren hiriburu gisa. Bestetik, historian lehenengo aldiz, menu erabat beganoa zerbitzatu zuten Urrezko Globoen antolatzaileek urtarrilean. Badirudi moda baino zerbait gehiago dela animalia jatorriko elikagaiak dietatik kentzea edo murriztea. Zifrek ere hori esaten dute, gainera.

Hazten doan eskaera

Lantern aholkularitza etxeak 2019an egindako *The Green Revolution* izeneko txostenaren arabera, Espainiako Estatuko herritarren %9,9 sailkatzen da *veggie* gisa. Hau da, begetalak jartzen dituzte elikaduraren erdigunean. Guztira, ia lau milioi pertsona dira.

Termino anglosaxoi horretan, hiru herritar multzo sartzen dira.

Multzoetako bat beganoena da: ez dute animalia jatorriko elikagairik jaten eta %0,5 dira.

Beste multzo bat begetarianoena da: barazkiez gainera, animalia jatorriko arrautzak eta esnea hartzen dituzte eta %1,5 dira.

Beste multzoa flexitarianoena da; begetalei lehentasuna emanda noizbehinka haragia ere jaten dutenak, eta %7,9 dira.

Ikerketan ageri denez, dieta mota horiek %27 handitu dira Espainian azken bi urteetan. Batez ere, emakumeak, gazteak eta hiri handietan bizi direnak dira, horiek egiten dute-eta gehien aukera berdeen alde.

Animalien ongizatea eta iraunkortasuna ez ezik, gehienek osasuna ere aipatzen dute haragia baztertzeko arrazoi nagusi gisa. Baina produktu ultraprozesatu begetarianoak onuragarriak al dira organismorako? Ba, ez beti.

Industria eguneratzen ari da

Elikaduraren arloan agertu diren joera berriek eta gisa horretako produktuen eskarian izan den igoerak oihartzuna izan dute industrian ere.

Aurreikuspenek diotenez, haragiaren ordezkoen merkatu globala ia 4.500 milioi eurora iritsiko da 2020an, eta 2023an, berriz, 5.757 milioitik gora joango da.

Hori horrela izanik ere, *Nutrition Insight* aldizkarian argitaratutako *Vegans/Vegetarians/Flexitarians* izeneko ikerketak adierazten du produktu beganoen eskaintzarik handiena ogitegiko jakietan eta zizkamizketan biltzen dela, eta funtsean elikagai klasikoei zerealak edo haziak eranstea izaten dela proposamena aukera osasungarri gisa. Ikerketa 2013. eta 2016. urteetan artean egin zuten.

Osagaiak aztertu

Hor sartzen dira, besteak beste, granolak – intxaurreak eta olo-malutak oinarri hartu

MERKATUKO ESKAINZA GUZTIA EZ DA OSASUNGARRIA, ETA ONDO AZTERTU BEHAR DIRA OSAGAIK



eta eztiarekin edo bestelako elikagai naturalekin osatutako jakia– eta muesli barratxoak.

Nutrizioaren ikuspegitik, egia esan, aski apala da horien kalitatea. Gehienak irin finduekin egindakoak dira, eta ez irin osoekin, eta azukre erantsi asko izaten dute.

Osagai konposatuak ere badituzte. Hau da, ez dira lehengaiak. Gainera, azukrez eginak dira, gehienbat – esaterako, txokolate haziak–, eta kalitate eskaseko gantzak izaten dituzte. Landare-olio finduak, kasu.

Hala ere, *veggie* saileko eskaintza handitzen ari da etengabe. Pertsona askok gorputza zaintzeko erabakitzen dute elikadura

begetarianoa egitea, eta, ondorioz, izugarri handitu da elikagai funtzionalen eskaintza.

Oinarrizko nutrizioa eskaintzeaz gain, osasunean nolabaiteko eragin mesedegarria duten elikagaiak dira.

Elikagai aberastuen eskaintza ere handituz doa. D bitamina eta B12 bitamina eskuratzeari izaten da mota horretako elikagaien helburua, bi elementu horiek haragitik eta arrainetatik lortzen baitira gehienez.

Zaporeak eta testurak birsortzen
Ikerketa asko egin dira haragiz egindako produktu horien zaporeak eta testurak birsortzeko, eta nagusiki soja erabili dute osagai gisa.

Begetal hori ageri da produktu berrien %44an.

Sojaren dohainen artean daude ura atxikitzeko gaitasuna, proteina asko izatea eta askotariko aukerak ematea nahiz eta alergenoa ere baden. Nahitaez nabarmendu behar da etiketan sojaren horren presentzia.

Beste aukera bat izaten da ilarren irina erabiltzea, eta baita beste lekale batzuen ere; adibidez, garbantzuena eta dilistena. Eta baita onddoen biomasa ere: substantzia elikagarria da, onddo hartzituekin lortzen dena. Ez du kolesterolik, zuntz ugari ematen du, mikroproteinak ere baditu eta gantz saturatu gutxikoa da. ■

Txopekua jatetxean denetariko aukerak



JESUS ARSUAGA SUKALDEBURUA
IRUDIAK: TXOPEKUA ETA J.O.

Paraje itzelean kokatuta, Arantzazura bidean dago Oñatiko Txopekua jatetxea. Zazpi urtez itxita egon ostean, 2019ko irailean ireki genituen berriz ere ateak. Jatetxea berritu ostean, indarberrituta gatoz, betiere sasoiko eta bertako produktuen aldeko apustua eginda. Hala ere, Txopekua jatetxearen betiko ezaugarri izan den familia giroari eta gertuko tratuari eutsi diogu.

Txopekua jatetxea

- **Helbidea:**
Uribarri Auzoa 5, Oñati.
- **Telefonoa:** 943 78 05 71.

Familian gozatzeko

Familian gozatzeko aukera ezin hobe da Txopekua jatetxea. Ospakizunak egiteko aukera eskaintzen dugu, hain zuzen ere horretarako prestatutako menua eskaintzen baitugu.

Haurrak ere gustura izango dira gurean, jateko apropos eta gustukoaz gain jolaserako eskaintza zabala izango baitute: gure jatetxearen kanpoaldean jolas parke bat estalia eskaintzen dugu. Bertan era seguruan diberti daitezke umeak.

Menu bereziak

Astean zehar eguneko menua eta karta eskaintzen ditugu, etxean prestatutako jaki tradizionalen aukera zabalarekin.

Aste bukaeretan, berriz, menu bereziez gozatzeko aukera dago; baita baba-jana edota sagardotegiko menua dastatzeko ere. Taldeentzat, gainera, menu bereziak lantzen ditugu, haiendako bereziki prestatuak. Hauek destatzeko, baina, aurretik abisatzea komeni da. ■■■



TXOPEKUA JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Bildotsa era tradizionalen

Osagaiak (4 lagunendako)

- Bertako bildotsa
- Gatza
- Olioa
- Ozpina
- Ardo zuria
- Letxuga

Prestaketa

- 1. Labea 170 gradura berotu.
- 2. Bitartean, bildotsa erretilu (bandeja) batean jarri, gatzarekin eta olioarekin, azala behera begira duela.
- 3. Sartu labean 40 minutuz. Ondoren, igo tenperatura 190 gradura eta 50 minutu utzi.
- 4. Bildotsari buelta eman eta ozpina eta ardo zuria gehitu.
- 5. Beste 20 minutuz labean sartuta utzi.
- 6. Bildotsak berak duen saltsa loditu.
- 7. Salta hori gainetik bota bildotsari.

Zailtasuna: •••••

Aurreko zozketako irabazlea:

Edurne Idigoras Gamboa (Aretxabaleta)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Momentu askotarako aproposak

TRAJEAK

AMAIA ARANEGI

ARGAZKIAK: PINTEREST

Jakaz eta prakaz osatutako trajeak oso presente egon dira beti modan, baina, beharbada, ikusiago izan dira gizonengan. Orain, emakumeek *look*-a osatzeko erraz jotzen dute horretara eta estilo eta momentu desberdinetarako asko erabiltzen dira gaur egun.

Koloreari, ehunari eta gehitutako osagarriei dagokienez, aniztasun handia dago, eta, hauen arabera, momentu desberdinetarako apropos bihurtzen dute *look*-a.

Trajeek askatasun handia ematen dute bakoitzak nahi duen estilora eramateko, eta momentu desberdinetan janzteko moldakorrak dira. Honela dio Chic dendako Irma Juarisitik: "Trajea egunerokotasunean eta baita momentu berezietan jantzi daiteke. Lanera joateko aproposa izan daiteke, baita ezkontza batera joateko ere".

Hainbat egoeratarako

Trajeek dotore itxura eta sentazioa ematen dute, baina kamiseta eta zapatila batzuekin egunerokotasunerako ere *look* aproposa osatzen dute.

"Trajeak oso samur konbinatzen dira; lanera joateko aukera ona izan daitezke. *Look* kasuala osatzeko, zapatilak, kamiseta eta jaka nahikoa izango lirarteke".

Momentu edo ekitaldi berezi baterako ere asko ikusten dira trajez osatutako *look*-ak. Kasu hauetan, *look*-ak beste sentazio batzuk transmititzen ditu eta osagarriak ere beste batzuk izan daitezke. Oinetako takoidunak, poltsa bat, makillajea eta belarritakoak gehitu daitezke.

"Boda baterako edo ekitaldi berezi baterako joeran dago trajeak janztea, eta, egia esan, aukera aproposa da. Erraza da, eta edonorentzako aproposa".

Ekitaldi berezietarako, berriz, aniztasun handia dago trajearen azpitik erabilitako jantzietan. Festa baterako, adibidez, batzuek jakaren azpitik ez dute ezer jartzen, eta badaude top edo kamiseta motzak erabiltzen dituztenak. Beste ekitaldi batzuetarako, adibidez, ohikoa izaten da tirantedun lentzeria-kamiseta bat erabiltzea.

Askotariko koloreak

Traje ilunak eta beltzak ohikoak izan badira ere, koloreei eta estapanpatuei dagokienez aukera zabala dago. Kolorezko trajeak daude joeran: arrosa, horia, urdina... baina arraiazkoak eta koadrodunak ere asko ikusten dira. Kolore argiek atentzioa eman eta egunerokotasunetik aldentzeko balio dute.

Kolore marroixkak eta ilunak diskretuagoak dira, eta arraiazkoak eta koadrodunak, desberdinak. ■■■



Koadrodun trajea.



Traje berdea.



Traje urdina.



Joeran dauden koloreen trajeak.



Traje koadroduna.



Traje koadroduna.



Look kasuala trajearekin.

Patinetea, lanerako erreminta

PATINETE ELEKTRIKOA

MAIALEN SANTOS

ARGAZKIAK: M.S.

Sei hilabete besterik ez darama Wilmer Burgos oñatiarrak patinete elektrikoaren erabilpena, baina sobera argi du azken boladan egin duen "aurkikuntzarik" onena dela.

Joan den abuztura arte, bizikleta erabiltzen zuen herrian batetik bestera mugitzeko, baina, zenbait ezustekorengatik, bizikleta alde batera uztea erabaki zuen. "Seigarren solairuan bizi naizenez, bizikleta etxera igo beharrean atari kanpoan uzteko ohitura nuen. Lotuta utzi arren, lurrean botata aurkitu dut zenbaitetan, eta lapurretan ere birritan egin didate", azaldu du Burgosek. Era berean, ikusten zuen jendea hasia zela,, esaterako, herrigunetik kanpo dauden enpresetara patinetean joaten. Gauzak horrela, bizikletak ematen zizkion "arazoei" aurre egiteko soluzioa izan zen patinetea; horiek dituzten ezaugarriak ezagutu eta bat erostea erabaki zuen.

Errekadutarako "lagungarria"

Oñatiko Odriozola harategian egiten du lan Wilmer Burgosek, eta, berak aitortu duenez, batez ere "lanerako erreminta" gisara erabiltzen du patinetea. "Errekaduak etxe etxe edota tabernetan banatzeko baliagarria zait", azaldu du. Eskulekuaren azpian lotura bat jarri dio patineteari, eta

bertatik zintzilik eramaten ditu errekaduetako poltsak. Errekadu gehiago eraman behar ditueneko, gainera, beste poltsa bat edo zorro bat erabiltzen du bizkar gainean.

Lanerako ez ezik, etxetik lanerako bidea –eta alderantziz– egiteko ere balio dio, eta etxeko erosketa egitera ere patinetean joaten da: "Lehen, astean behin autoz etorri behar izaten nuen lanera, gero erosketa egitera joateko. Orain, patinetearekin aski dut". Azaldu duenez, konturatu da "denbora asko" galtzen zuela autoa auzotik atera eta aparkatu bitartean, eta gaineratu du erosketa guztia aldi berean egin behar izaten zuela, "autoa mugitu izana aprobeatzeko". Orain, "nahi bestetan" joan daiteke erosketa egitera, patinetean "erraz" mugitu daitekeelako; hori gutxi balitz, ez du aparkaleku bila "denborarik galtzen". Horretaz gain, "ingurumenari mesede" egiten ari zaiola uste du Burgosek, autoaren erabilera ahal duen heinean "saihestu" egiten duela arrazoituta.

Astean behin kargatu beharra

Elektrikoa den heinean, bateria bidez dabil patinetea; alegia, kable bidez entxufe batera konektatuta elikatzen da. Burgosek azaldu duenez, "astean behin" kargatuta nahikoa da, eta berak zapatu arratsaldeetan hartzen du



Eskulekua, frenoa eta argia.



Lanerako bidean, patinete gainean.



Errekaduak soinean, banatzeko gertu.



Wilmer Burgos oñatiarra Xiaomi Mi Electric Scooter Pro patinetearekin.

horretarako tartea: "Asteko lan-jarduna amaitzen dudanean kargatzen dut; eta lauzpabost ordu behar izaten dira guztiz kargatu dadin. Era horretan, astelehenean berriz ere lanari ekiteko prest izaten dut". Lanetik haratago gutxitan erabiltzen du, "zerbait puntuala egiteko" soilik. Hala ere, ondoko herrietara ere joan izan da, patinetea "probatzeko" asmoz: "Gehienez ere, 38 kilometroko ibilbidea egiteko aukera ematen du; bada zerbait. Arrasateraino joan izan naiz, esaterako, eta buelta egin". Abiadurari buruz galdetuta, orduko 24 kilometrora joan daiteke gehienez, baina bera "polikixeago" joaten dela dio. Eskulekuaren inguruan duen pantailak markatzen dio une oro daraman abiadura, eta freno ere inguru horretan dago. Bertatik eramaten du patinetearen kontrola. Haatik, abiadura finko mantentzeko aukera ematen du pantailak, eta orduko 8 kilometro inguruko abiadurara joaten da patinetezalea. "Bidegorrian azkarrago joan naiteke, baina errepidea arriskutsua dela uste dut". Kalean dabilenean, bestalde, oinezkoekiko errespetua izatea "ezinbestekoa" da, bere aburuz, ez baitu inorekin "arazorik" izan nahi, eta, are gutxiago, ezbeharrik. Gaur-gaurkoz, "zorionekoa" da Burgos; ez du izualdirik gogoan. ■■■

Markel Bazanbide

NAROA URIEN BERRIO

ARGAZKIAK: MARKEL BAZANBIDE

Aretxabaletan Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten dihardu Markel Bazanbide arrasatearrak. Bi urte daramatza argazkilari freelance izaten eta, bereziki, kirol txapelketetako bizipenak islatu ohi ditu argazkietan.

Noiz hasi zinen argazkigintzan?

Txikitatik gustatu zait mundu hau. Oporretara joaten ginenean, leku guztietara kamera eramaten genuen, eta zaletasun moduan hasi nintzen argazkigintzan. Pixkanaka, nire kabuz argazkiak egitera joaten nintzen kirol txapelketetara, eta gustatzen zitzaidala ohar-tu nintzen.

Nola egiten duzu lan?

Lasterketako akreditazioak lortzea izaten da lehenengo pausoa. Beste batzuetan, lasterketako antolakuntzak berak edota txirrindulari talderen batek egiten dit enkargua. Bertara joatean, ahalik eta argazki gehien ateratzea gustuko dut, ondoren aukeratu ahal izateko. Posturak zerikusi handia izaten du; beraz, *rafagaker* erabiltzen ditut, eta ondoren, gehien konstatzen duen argazkia aukeratzen dut. Argazkiak atera ondoren, etxera bueltatu eta edizio lana egiten hasten naiz. Denbora asko ematen dut horretan; izan ere, ezinbesteko lana da nahi den helburu estetikoak lortzeko.

Txirrindularitzaren inguruko argazkiak egin ohi dituzu.

Kirola gustuko izan dut beti; txirrindularitza, bereziki. Lasterke-



tak eremu zabaletan egiten dira eta hainbat tokitan argazki ezberdinak ateratzeko aukera ematen du. Gaur egun, edozeinek atera ditzake argazkiak, baina originala izatea da zailena. Momentu berezia datorrela iragarri eta argazkia momentu egokian ateratzean dago gakoa; lasterketa hasierako urduritasuna, garailearen emozioak... Gainera, beste kirol batzuekin alderatuz, ikusleak kirolariengandik oso gertu egoten dira eta hauen interakzioa argazkietan islatzeko aukera ematen du kirol honek.

Zure argazkiek arrakasta dute Instagramen.

Sare sozialek indar handia dute, eta etekina ateratzen jakitea garrantzitsua da. Instagrameko @

markel.bazan kontua zabaldu nuenetik, jarraipen bat ematen saiatzen ari naiz. Oihartzuna lortzen ari naiz, eta oso pozik nago; jendeak zoriontzeko idazten dit eta txirrindulari profesional batzuek nire argazkiak argitaratzen dituzte euren kontuetan. Horrek harro sentiarazten nau, lan ona egin den seinale baita. Banoa poliki-poliki bidea egiten.

Non ikusten duzu zure etorkizuna?

Oraindik, ikasten nabil, baina denbora librea lasterketetara joateko erabiltzen dut. Orain arte, bideo edizio lanetan ibili naiz, baina nire ametsa mundu mailako lasterketetako argazkilari izatea da. Nire zaletasunak biltzen baititu ogibide honek, argazkigintza eta kirola. ■■■



Zinea, pasio eta ogibide

JOAN SALA FILMIN PLATAFORMAKO KIDEA

AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: JOAN SALA

Otsailaren 20tik martxoaren 1era bitartean egin dute Berlinale zine jaialdi ezaguna, eta han izan da Filmin zine plataforman lan egiten duen Joan Sala arrasatearra. Salaren eginbehar nagusia izan da, batetik, programazioa, eta, bestetik, plataformarako filmak lortzea, eta, horrez gain, filmei buruzko artikuluak idatzi ditu blogean; jaialdiaren bi aldeak, kazetariena eta industriarena, barrutik bizi izan ditu, hortaz.

"Nekagarria, baina liluragarria"

Aurrez Donostiako, Gijongo eta Sevillako jaialdietan izan ondoren, 2011n hasi zen joaten Berlingora, Cannespora eta Veneziakora. Bederatzigarrenez izan da Berlinale, eta, bukatu berria, asko gustatu zaiola dio: "Egia esan, oso ondo etorri zaio zuzendaritza artistikoan egin duten aldaketa; talde berria jarri dute eta asko igarri da egin duten filmen aukeraketa arriskatuan. Orain dela urte batzuk, ezinezkoa zatekeen sail ofizialean *Siberia* (Abel Ferrara) film erradikala ikustea. Aitortu behar dut sekula baino gehiago gustatu zaidala aukeraketa".

Halako jaialdi baten lan egitea "oso intentsua" baina, aldi berean, "liluragarria" dela dio: "Berlinen, eguneko lau edo sei film ikusi ditut, eta, horrez gain, salmenta agenteekin eguneko

lau eta sei bilera bitartean izan ditut, eta egon dira zortzi batzar izan ditudan egunak ere; libre geratzen zaidan tarte laburra idazteko, jateko eta lo egiteko aprobetxatzen dut".

Hamabi urte Filminen lanean

Astelehenean itzuli zen Sala etxera. 2003tik Bartzelonan bizi da; MUn Humanitateak ikasi ondoren, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea ikastera joan zen Kataluniara, eta 2008an hasi zen Filmin plataforman lanean; gaur egun, programatzailea eta edukien editorea da. "Zinemako filmak bideo formatuan banatzen zituen Cameo enpresatik sortu zuten Filmin, 2007an, Juan Carlos Tousek, Jaume Ripollek eta Jose Antonio Lunak, eta geroago, bazkide gehiago batu ziren, Internet garatzeak filmen banaketan bete-betean eragin zuen eta", dio Salak.

Plataformaren hastapenetan hasi zen Sala Filminen; bost lankide bakarrik ziren orduan, eta gaur egun, 30etik gora dira. "Edizio eta erredakzio lanak egiten nituen hasieran, eta zine jaialdietara joaten hasi nintzen

FILMIN PLATAFORMAKO KIDEA DA JOAN SALA ARRASATEARRA, ETA BERLINALE ZINE JAIALDIAN IZAN DA

geroago. Filmin plataformaren hazkuntzarekin nire lana aldatuaz joan da, eta gaur egun, programazio eta edizio lanez gain, Filminek antolatzen duen eta Europako filmak oinarri dituen Atlantida Film Fest jaialdia prestatzen ere jarduten dut; aurten, hamargarrena da".

Euskarazko filmak ere bai

Otsailean abiatu zuten *Filmin euskaraz* kanala; euskarazkoak, euskaraz bikoiztutakoak eta euskaraz azpigitulatuak filmak eskaintzen ditu. "Kostatu zaigu ekimen hori abiatzea, eta lehenengo pausoa gaude oraindik; izan ere, gure asmoa, *FilminCAT* kanalarekin egin dugun moduan, gure plataformaren euskarazko bertsio osoa egitea da, baina Eusko Jaurlaritzaren babesa beharko genuke horretarako. Momentuz, 40 film ditugu, eta gure asmoa da poliki-poliki zerrenda osatzen joatea; izan daitezke film klasikoak, berriak edo zaharragoak ere bai".

Txikitatik zinezalea

Lanorduetatik kanpo ere film artean ibiltzen da sarri Sala, eta zinemazalea txikitatik dela aitortzen du: "Nire aitaren bitartez jaso dut zaletasun hori. Gogoan dut 7 urte nituela astebururo joaten ginela Gasteizko zinemetara; horrez gainera, hilero izaten genituen zine-aldizkariak etxean, eta aitarengandik heredatu nuen,



Joan Sala arrasatearra Berlinale jaialdian izan da.

VHS garaietan, pelikulak grabatzeko, erosteko eta baita bildumak egiteko pasioa ere. Iraultza digitalarekin, orain, beste kontu bat da, baina aita eta biak aspalditik gara formatu fisikoaren aldekoak".

Zinemarekin gozatzeko modu egokiena pantaila handia dela dio: "Hala ere, egia da gaur egun ditugun SmartTV-ekin, soinu ekipamenduekin eta plataforma digitaletan dauden eskaintzekin, errazagoa dela etxean nor bere zinema aretoa muntatzea. Hori bai, lehenengo aukera, niretzako, beti, posible bada, zinema aretora joatea da, noski! Bartzelonan, batez beste, bi edo hiru alditan joaten naiz astero zinera".

Film gomendagarriak

Orain dela urte batzuekin alderatuz, gaur egun, film asko egiten dira; zinema aretoetan estreinatzen dira, oraindik ere, gehienak, baina gero eta gehiago dira *streaming* bidezko plataformek egin eta eskaintzen dituztenak. Gustuko filmen bat gomendatzeko eskatuta, honako hauek proposatu ditu Salak: "Une honetan Filminen ikusgai ditugunen artean, *Fish&Cat*, *An elephant sitting still* eta *No inteno agora* aukeratuko nituzke, eta, zinema aretoetan estreinatu berriak direnetatik, *Monos* eta *Nuestras madres* izenekoak. Donostiako Zinemaldian eskaini zituzten; oso ezberdinak dira, baina biak ala biak ikaragarriak dira". ■■■

Irakurzaletasunaren frikismoak bizi gaitu



Bibliomanías

Egilea: The Wild Detectives eta Laura Pacheco

Argitaratzailea: Pepitas

Argitaratze urtea: 2019

Orrialdeak: 95

Generoa: Komjkia



DORLETA KORTAZAR IPUIIN KONTALARIA

Asteak zeramatzan komikiak Arrasateko liburutegiko apalean nire zain, aurretik pasatzen nintzen bakoitzean niri begira-begira. Azkenean, lagun batek sare sozialetan gomendatu, eta etxera nirekin eramatea erabaki nuen. Ze gozatua eta ze algarak bineta bakoitzarekin! Irakurzaileen maniak, bizipenak, pasarteak jasotzen ditu komikiak, zentzubakoak batzuk, errealegiak guztiak: orriak tolestu edo azpimarratzearen bekatua, liburu bat gomendatzea hil ala biziko kontu bihurtzea, loari kentzen dizkiogun orduak, gure harremanak baldintzatzeraz iristen diren ohiturak, beste berbagairik ez edukitzea, gaixotzeaz poztea hartara denbora gehiago dugulako irakurtzeko, liburuzainekin eta

saltzaileekin dugun harremana, inguruko en irakurgaiak kuxkuxeatzea...

Astero, bi urtez, sare sozialetan argitaratu diren komiki tiren bilduma da liburua, gaztelerara itzulita. Sorkuntza prozesua ere bitxia izan da, idazleak eta ilustratzaileak ez dute elkar ezagutzen, ez dute inoiz elkarrekin hitz egin. Posta elektronikoz egin dute lan, gidoilariak Dallastik (AEB) testua bidali eta ilustratzaileak Almerian egin ditu komiki tirak. Pertsona errealak dira

SEGURU ORRI HAUETAN JASOTA DATOZEN EGOERA BATEN BAINO GEHIAGOTAN IKUSI DUZULA ZURE BURUA

protagonistak, eta benetako anekdotak kontatzen dira.

Gidoilaria, Andres de la Casa-Huertas, diseinatzaile grafikoa eta arte zuzendaria da. Azken urteetan, liburu denda eta taberna den negozio batean egiten du lan, eta bertan ezagututako pertsonengan eta egoeretan oinarrituta idatzi ditu istorioak. Ilustratzaileak, Laura Pachecok, irudi oso biziak sortu ditu, istorio bakoitza lau binetatara mugatuz eta orri bakoitzean hiru kolore soilik erabilia.

Seguru nago orri hauetan jasota datozen egoera baten baino gehiagotan ikusiko duzula zure burua islatuta. Eta seguru nago zuk ere baduzula liburuekiko mania bat baino gehiago. Ea, kontatu, kontatu... zein da zure mania? ■■■

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira otsaileko irabazleak!

EBOOK READER

Javier Ugarte Inza (Oñati)

HARREMAN DENDA KO OTARREA

Gregorio Cortabarria Balanzategui (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Asier Bergaretxe Leibar (Arrasate)

Xabier Mugarza Ayastuy (Oñati)

Maidier Murgizu Ruiz de Azua (Bergara)

"ENE BA!" ANTZERKIRAKO SARRERAK

Iñaki Jauregialtzo Zabala (Arrasate)

Arrate Agirre Agirreurreta (Arrasate)

Beñat Unzueta Elorza (Aretxabaleta)

"SIMPLICISSIMUS KABARET" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Jose Ignacio Aguinagalde Garitano (Bergara)

"KASKAROT" ANTZERKIRAKO SARRERAK

Mireia Olabe (Aretxabaleta)

Amaia Bikuña Martínez de Zuazo (Oñati)

Nerea Martínez Azkargorta (Arrasate)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Ainhoa Pagaldai Zenitagoia (Arrasate)

ERREKI JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Kontxi Bilbao Mujica (Bergara)

HILARION JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Maidier Perez Martinez (Eskoriatza)

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Tartean Teatroari eta Arrasateko Udalari esker

"Simplicissimus kabaret" ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoak 15 | 19:30ean

Ozenki Elkarteari esker

"Cavalleria Rusticana" ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoak 17 | 20:30ean

PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 10ERA ARTE

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus | Whatsapp: KLUBA "Kabaret" / Cavalleria" [bakidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazlearen LFPI D/1000 legezko ordain, jenerazio bakoitzeko datu pertsonalari Goiena komunikazio zerbitzuen bitartez automatikoki batera sartuko dira. Datu bikoitzi/errepikatuen bakoitzeko irabazlearen datuak automatikoki gozatzeko. Eskubirik gabe datuak erantsi, bakoitzeko irabazlearen izena, helbide eta telefono datuak klub@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitur: 943 25 05 05

klub@goiena.eus

goienakluba

Espezie autoktonoendako lekua

ARRASATEKO ANTONIÑAKO HEZEGUNEA

MIREIA BIKUÑA ETA XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: X.G.

XX. mendearen hasieran, Arrasateko Meatzereka auzoko meatzetatik ateratzen zen minerala Antoniñaraino eroaten zuten, bereziki, kable bidez. Han, txikitu, bahetu eta garbitu egiten zen, lurrak, buztinak eta materia organikoa kentzeko. Urteetako aktibitate ekonomiko hark oso kaltetuta utzi zuen ingurua. Albo ondorioetako bat izan da akazia inbaditzaileak bere egin duela gune hori.


Hori horrela, Arrasate Institutuaren atzealdean, Anporretara joateko bidea dagoen tokian, anfibioak, txoriak eta landare autoktonoak hezteko gune bat sortzeko proiektua abiarazi zuen Arrasateko Udaleko Ingurumen Mahaiak. Mahai horretan daude udalbatzan ordezkariak duten alderdi politiko guztiak, Besaide Mendi Elkarte, Naturtzaindia Elkarte, SUDC, San Prudentzio elkarte, Ekologistak Martxan, Arrasate Zientzia Elkarte eta Zero Zabor.

Zuhaitz eta landare berriak

Askotariko pausoak eman dituzte, hezegune horrek merezitako itxura eduki zezan. Eta, aurkezpen ofizialik egin ez bada ere, otsailean egindako Zuhaitz Eguna izan zen ingurua nola geratu den ikusteko momentua. Gainera, auzolanean, 200 zuhaitz berri



Zuhaitz zati bat.



Landareak putzuan.



Txoriendako habia.

landatu zituzten, eta inguruetako landare inbaditzaileak kendu; bestetik, zuhaitz inbaditzaileei gerria zuritu zieten.

Zingira prest

Anporretatik doan errekatxo albotik pasatzen dela baliatu dute zingira edo putzu bat sortzeko. Gune hori ez da aisialdirako bainu lekua. Igelak, apoak, zapaburuak, hegaztiak eta landareak hazteko gunea da. Espezie autoktonoendako gunea, alegia. Dagoeneko hasi dira txori batzuk Antoniña ingurura joaten. Proiektua idazteko orduan Salburuko eta Urdaibaiko hezeguneak hartu zituzten kontuan. 30 bat zentimetroko sakonera duen putzuaren gainetik ibiltzeko egurrezko pasabide bat egin dute. Hori horrela, gertuagotik ikusi ahal izango dira hango espezieak.

Zortzi mailako presa

Antoniñako hezegunetik oso gertu, errepidearen beste aldean, Mojategirantz doan bailaran presa bat dago. Udalatx ingurutik ateratzen ziren mineralak garbitzeko erabili zen, XIX. mende bukaeratik 1930. urtera arte. Zortzi mailakoa egin zuten, baina badu berezitasun bat: kanal modukoa du erdian, beharra izanez gero presa zabaldu ahal izateko. ■■■




Egurrezko pasabidea putzuaren gainean ibiltzeko.



Zuhaitzak, garbituta.



Putzua.



Antoñako presa zaharra.

Kontrolpean?




ANDREA GONZALEZ

Aste honetan, lagun artean hitz egiten, batek Jim Morrisonen komunikabideen inguruko esaldi famatu bat aipatu zuen: "Komunikabideak kontrolatzen dituenak adimena kontrolatzen du". Eta gehiago bat ados zegoen, baina nik zalantza izan nuen.

Azken boladan, guztiok jotzen dugu komunikabideetara koronabirusaren, Zaldibarko auziaren eta beste hainbat gairen inguruko albisteak jakiteko intentzior, baina baliteke ematen diguten informazioa manipulaturuta egotea.

Guztiok dakigu pisu komunikatibo handia duten hedabideak botere ekonomiko handia duten pertsonen esku daudela eta baliabide hauek erabiliz beraien interesen alde egiten dutela. Hori horrela izanda, guk nahi edo ez, gizartean garrantzia dute, haien onurarako dena produzitzeko dirua jartzen dutelako eta guk merkatuan dagoena kontsumitzen dugulako. Hau jakinda, ulertzen dut Morrisonen esaldiak esan nahi duena, gure garunean sartzen direlako eta kanonak, estereotipoak, aurreiritziak, gustuak, eta abar, eta abar inposatzen dituztelako.



CREATIVE COMMONS / PMK

Halere, uste dut egunerokotasunean ez dugula begiratzen zer eskaintzen diguten, muturren aurrean jartzen diguten guztia sinesten dugula.

EZ DIOGU UTZIKO HEDABIDEAK KONTROLATZEN DITUEN HORRI GURE ADIMENA ERRAZ KONTROLATZEN

Hedabideen jabeek egunerokotasunean alde batetik bestera gabiltzala aprobetxatzen dute, horrela, edozer gauza esanda ere, berdin-berdin sinetsiko dugulakoan.

Nik Jim Morrisonen esaldia moldatu eta zera esango nuke: "Komunikabideak kontrolatzen dituenak adimena kontrolatzen saiatzen da". Guk, gizaki moduan, gure kabuz pentsatzeko gaitasuna daukagu. Pentsamendua erabiliz, eszeptikoak izan eta gauzak zalantzan jarri behar ditugu, gure kabuz ere informazioa bilatu, irakurri, hausnartu eta gure iritzi propioa atera.

Behin gure iritzia izanda, hedabideak ematen duen informazioarekin alderatu eta hor norberak ikus dezala zer sinetsi edo ez. Ez da komenigarria informazio iturri bakarraz fidatzea, ikuspuntu desberdinak egon daitezkeelako. Aldiz, iturri bat baino gehiago erabiltzen baditugu, informazioa eskuratzeko gai horrekiko informazioa kontrastatua izango da, eta, era berean, sinesgarriagoa. Beraz, ez diogu utziko hedabideak kontrolatzen dituen horri gure adimena horren erraz kontrolatzen. ■



goiena^{''}

ADI!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatu da. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori.
Famili bakarreko etxeetan, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: Televisiondigital.gob.es.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena^{''}
KOMUNIKAZIOTALDEA

Bonbilla adimenduna nola aukeratu

Gero eta aparatu gehiagok dute *smart* abizena, eta ez da erraza izaten norberarentzako aproposena aukeratzea.

Wifi bidezko bonbillak

Bonbillak mugikorreko *app* bidez kontrolatzen dira, baina, horretara mugatu beharrean, helburua da *Home Assistant* sistemekin bateratzea, etxeko argiztapena ahots bidez kontrolatzeko, eta ez soilik bonbilla bakarrik mugikorrarekin. Gehienak *Google Assistant* zein *Alexa*-rekin funtzionatzen dute, batzuek baita *Siri*-rekin ere.

Bonbilla zuriak eta koloretakoak (RGB) erosi daitezke. Bigarren horiek giro beroagoak edo hotzagoak sortzea ahalbidetzen dute, kolore horiak edo urdinak aukeratuta. Hala ere, normalean, oinarritzko kolore zuria da erabiltzen da gehien. Kolorea aldatzeko aukera eskaintzen dutenak, kasu gehienetan, garestiagoak dira.

Wattak ere kontuan izan behar dira: sabaiko eta mahaiko lanparek potentzia ezberdina behar dute.



TESTUA: ITZIAR LARRAÑAGA



Teknologia lagun, pianoa jotzen ikasteko

Pianoa jotzen hasi nahi duenak hainbat aplikazio ditu aukeran. Ezagunenak artean daude *Flowkey*, *SimplyPiano* eta *Yousician*.

Aplikazioak lagun

Instrumentuak jotzerakoan, smartphonea aliatu handi bilakatu daiteke; jarraian jo behar ditugun akordeak ikusteko, instrumentua afinatzeko edo bestelako trikimailuak ikasteko.

Flowkey irakasle baten figura hartzen saiatzen da, pianoa jotzen hutsetik eta pausoz pauso erakutsita. 2.000 abesti baino gehiago dauzka, eta 3 milioi deskargatik gora. Teklatua aplikazioa lotu daiteke USB edo Midi bidez; horrela, egindako akatsak zuzentzen ditu. Oinarritzko bertsioa doan da eta ordainpeko hiru aukera dauzka. Momentuz, ez dago euskaraz.

Simply Piano *app*-ak maila eta gustu musikal ezberdinetara egokitutako ikastaroak ditu.

Yousician ere antzerakoa da, baina, gainera, gitarra, baxua eta ukelelea jotzeko ere balio du.



Jaio da!

**Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz Goienaren egoitzara.**

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Beñat Pagoaga Urra

Aretxabaleta. 3,320 kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Leire eta Xabier. Argazkian, amama Asunekin.



guraso.eus

Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • AFRASATE • 943 71 18 70



SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZI!

